



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

GERNIKAKO BATZARRETXERA EGINDAKO BISITEN BALANTZEA

Gernikako Batzarretxea Bizkaiko bigarren turismo-kultura gune moduan finkatzen da, Guggenheim Museoaren ostean

- Bizkaiko Batzarren egoitzeak 7.581 pertsonaren bisitea jaso eban eguen santutik atzora arte. Horreen arteko %77a Aste Santuko bost jaiegunetan etorri ziran.
- Estaduko beste erkidego batzuetatik etorritako bisitarien kopuruak %4 egin dau gora.
- Bizkaiko Batzarren egoitza Lurraldeko bigarren turismo-kultura gune moduan finkatzen ari da da, Guggenheim Museoaren ostean.

Gernikan, 2016ko apirilaren 4an.

Bizkaiko Batzarrek baieztu egin dabe barriro Gernikako Arbola dagoan lekuak jendea erakarteko dauen indarra. Gernikako Batzarretxeak igazko Aste Santuan, bere historian izandako bigarren zifra hoberenera helduz, lortu eban bisitarien erregistro bikaina sendotu dau aurton. Aste Santuko bost jaiegunetan bakarrik, ia sei mila pertsona hurbildu dira Bizkaiko Batzarren egoitzara. Kopuru horri Pazko asteko datuak gehitzen badeutsaguz, balantzea 7.581 bisitarigaz itxiko da. Horreen arteko %77 eguen santutik astelehenera, martiaren 28ra, bitartean joan ziran bertara.

Batzarretxeko sarreraren kopuruak izan dituan datu azpimarragarrienen artean, nazino barruko bisitarien erregistroa gainditu –%4 gehiago–, eta azkenengo urteetako kopuru altuena lortu dauela dago, 3.113 pertsonagaz, bost jaiegunetan bakarrik.

Bizkaiko batzarretako moltso arkitektonikoak, Gernikako Arbolak atsedean hartzen dauen lekuak, ia 700 pertsona jaso ditu batez beste azkenengo hamaika egunetan, eguenetik, martiaren 24tik, atzora arte. Dana dala, bisita gehienak bariku eta zapatu santuan izan ziran, eta egun horreetako bakotxean 1.700 sarrera baino gehiago izan ebazan.

Moltso historikoa ezagutzera hurbildu diran pertsonen %30 euskaldunak izan dira. Ganerakoak Euskal Herritik kanpotik etorri dira. Turisten erdia baino gehiago Estaduko beste autonomia erkidego batzuetatik etorri dira. Estaduko beste leku batzuetatik etorri diran bisitarien arteko gehienak katalanak izan dira, eta horreen ostean madrildarrak, valentziarrak eta Gaztela-Mantxakoak dagoz. Hamarretik ia bi atzerritarrak izan dira, gehienak frantsesak.

Bisitari kopuruak indartu egiten dau Batzarretxea eta Gernikako Arbola Bizkaia bisitetan daberen pertsonentzako ezinbesteko geralekua bilakatu dirala dinoan idea. Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren bihotzean dagoan batzarren egoitzak 100.000 bisitari baino gehiago jasoten ditu urtero, familiak batez be, eta horrek Bizkaiko bigarren turismo-kultura erakarpen gune bilakatzen dau, Guggenheim Museoaren ostean.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

BALANCE DE VISITAS DE LA CASA DE JUNTAS DE GERNIKA

La Casa de Juntas de Gernika se consolida como el centro turístico-cultural más visitado de Bizkaia tras el Museo Guggenheim

- **La sede del Parlamento de Bizkaia ha sido visitada, desde el Jueves Santo hasta ayer, por 7.581 personas, de las que el 77% se concentraron en los cinco días festivos de Semana Santa.**
- **Aumenta un 4% la cifra de visitantes venidos de otras comunidades.**
- **El Parlamento de Bizkaia se confirma como el segundo centro de interés turístico-cultural del territorio tras el Museo Guggenheim.**

Gernika, a 4 de abril de 2016.

El Parlamento de Bizkaia ha vuelto a confirmar el poder de atracción que posee el lugar donde reside el Árbol de Gernika. La Casa de Juntas de Gernika ha consolidado el excelente registro de visitantes que ya cosechó durante la Semana Santa del año pasado, que se convirtió en el segundo mejor de su historia. Sólo en los cinco días festivos de Semana Santa se acercaron al recinto parlamentario vizcaíno casi seis mil personas. Si sumamos a estos, los visitantes de la pasada Semana de Pascua, el balance se cierra con 7.581 visitas, de las que el 77% se concentraron entre el jueves santo y el lunes 28.

El cómputo de entradas en la Casa de Juntas durante estas jornadas destaca especialmente por batir el registro de llegada de visitantes del Estado español, alcanzando la cifra más alta de los últimos años. Sólo durante los cinco días festivos de Semana Santa (del 24 al 28) se immortalizaron 3.113 personas junto al roble de Gernika, un 4% más que en 2015.

El conjunto arquitectónico del parlamento vizcaíno, lugar de descanso del Árbol de Gernika, ha recibido una media de casi 700 personas durante los últimos once días, desde el jueves, 24 de marzo hasta ayer, si bien el grueso de visitas se concentró el viernes y sábado santo, superándose en ambas jornadas las 1.700 entradas.

Sólo el 30% de las personas que se acercaron a conocer el conjunto histórico llegó de algún territorio vasco. El 70% restante venía de fuera de Euskal Herria. Más de la mitad de los turistas procedía de otras comunidades autónomas. Entre los visitantes que se acercaron de otras zonas del Estado, los catalanes fueron mayoría, seguidos por madrileños, valencianos y castellano-manchegos. Casi dos de cada diez fueron extranjeros, la gran mayoría franceses.

Los números de visitantes refuerzan la idea de que la Casa de Juntas y el Árbol de Gernika se han convertido en parada obligada para las personas que visitan Bizkaia. Localizado en pleno corazón de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, la sede parlamentaria vizcaína recibe la visita de más de 100.000 personas cada año, eminentemente con un marcado perfil familiar, lo que le convierte en el segundo atractivo turístico-cultural del territorio, tras el Museo Guggenheim.